

{ koaderno } Iker Barandiaran

Bizarra, urratzailea eta iraunkorra

Espainiako Gobernu urduri dago Kataluniako kontsultaren emaitzekin, nahiz eta urduritasuna mozorrotzen saiatu den. Tankeen zain beste arma guztiak atera ditu dagoeneko bat izan ezik, ez daukalako: arrazoia. Espainiaren batasunean lerratuta ikusi ditugu *progreak* direla aspalditik inork sinesten ez dituen asko eta asko. Eta horien artean lotsagarrietatik lotsagarriena 80ko hamarkada hasieran, pana eta antezko txaketak modan jartzeaz gain, “Amnistia total” eta “OTAN no” zioten pankartak eskutan ibili, gero estatu terrorismoa babestu eta giza eskubideekin lotuta sinesgarritasun izpirik duela berak bakarrik sinesten duen Felipe Gonzalez antichavista bera.

Espainiako Estatuan sufritutako diktadura latzaren mozorrotze gaiztoa izan zen trantsizio hura ipurdi bistan gelditu zen aspaldi euskaldunen begietan; eta Espainian ere ondorioztatzen hasi dira azkenean. Bazen ordua! Itoginek eta urak itsasontzia hartu dute alde guztietatik, eta laster hasiko dira handik arratoiak salto eta hanka egiten. Aspaldi hasi ziren ihesaldirako ondasunak pilatzen; eta jada ez dago ondasunik, guztia dute pribatizatuta.

“Argia” aldizkaria bere ibilbide luzean pilatutako argazki artxibo aberatsari hautsa kentzen hasia da aspaldian eta altxor ugari daude bertan, jakina. Martxan jarri berri duen “Trantsizioak” erakusketa argigarrian ikuskatu daiteke goiko lerrotan aipatutako eta bestelako gure historiaren zati handi bat, eta baita pana eta bizarrek markatu zuten gure *Woodstock-White Panther* partikularra ere. Raul Castro Kolonbiako presidentearekin FARC eta Gobernuaren arteko akordioari zilegitasuna ematen eta aste berean NBEko egoitzan Obamarekin ere hizketan ikusi dugun honetan, gogora etorri zait Sierra Maestrako bizardunen jaitsiera hura eta luze, oso luze jo badu ere, erresistentziarekin eta burugogorkeriarekin, denborak arrazoia eman izana. Euskal Herrian ere izan da eta bada horretatik; horregatik eusten dio herri honek oraindik zutik eta bizirik. Eta mamia itxura baino askoz garrantzitsuagoa bada ere –ez daukat inongo zalantzarik–, bitxia da ni bizi naizen herrian, adibidez, inguruko leketan ez bezala, bibotea eta bizarra

duten gizon taldetxoa egotea, eta ez espresuki AEBetatik honaino etortzen hainbeste denbora eman duen azken moda horretakoa. Jon Idigoras, Txomin Artola eta beste askok irudikatu zuten horretakoaz ari naiz. Eta, hain gazteak ez garenontzat, garai bat, pentsaera bat eta jarrera bat irudikatzen du nahitaez “estetika” horrek, idilikoa edo ez, baina erraz identifikatzen duguna.

Horiek baino dezente gazteagoa den lagun batek luzaroan Espainiako enpresa tradizional handi batean lan egin du. Urteak pasa eta ardurak biderkatu zaizkio; jada ez da nahikoa piko luzeko erronbodun jertseak jantzita lanera joatea. Dena da eskaera eta dena atzorako. Gorba- ta gero eta gogorrago estutzen zaio lepoan eta ezin du gehiago. Halako batean konturatu da bizarra moztzen duen bakoitzean azala gaizki jartzen zaiola. Hala, hainbat proba egin ostean, bizarra luzatzen utzi behar izan du. Nagusiak ez du aldaketa hori ondo hartu, baina ja ez zaio

Espainiako Estatuan sufritutako diktadura latzaren mozorrotze gaiztoa izan zen trantsizio hura ipurdi bistan gelditu zen aspaldi euskaldunen begietan; eta Espainian ere konturatzen hasiak dira

inporta. Ez da beraiek bezalakoa eta haiek ere ondo daki- te hori. Badira zenbait urte bere izen-abizen bera duen gazte bat atxilotu zutenean biharamunean lagun honen nagusiak «*pensaba que hoy no vendrías*» esan ziola.

Bizarrak, oraingo tontakeriatik eta gaur egun ikusten den txetxeniari luzeratik (zeinek esango luke!) harago, badu zerbait transgresoretik edo hausletik, eguneroko idatzi gabeko arau horrekin modu soilean apurtzea iru- dikatzen duena. Ispilua, bizar-xafla eta eguneroko egin- beharrei aurre egiteko goizeko une hori, erabakigarria dena.

Bizarra moztu gabe etxetik lanera arteko bidea arinago egiten du orain lagunak, dagoeneko lanez aldatu du, gai- nera; ez du inongo gorbatarik lepoa estutzen eta mozo- rroa kendu balu bezala sentitzen da. Bidea egiteko mo- duan dago orain, bide propioa. •

Feminismoaren inguruko aldizkari digital euskalduna». Horrela definitu dute Klitto bere sortzaile eta koordinatzaileek: Malen Aldalur (Mutriku, 1992), Ana Iruretagoyena (Ordizia, 1992) eta Irati Urkiolak (Amara Berri, 1992). Donostiako Alde Zaharreko tabernetan, kafe eta garagardo artean izandako hizketaldi luzeetan erein zuten proiektuaren hazia, eta denbora gutxian lortu dute ideia horri forma eman eta errealitate bihurtzea. Bestelako lan eta zereginak badituzte ere, feminismoaren grinak elkartu ditu, eta azken hilabeteetan buru-belarri aritu dira euren proiektua gorpuzten. «Betaurreko moreak» ipinita interpretatu eta landuko dituzte edukiak, feminismoari «ikusgarritasun eta irisgarritasun handiagoa» emateko. Era berean, euskara bihurtu nahi dute feminismoaren balioak zabaltzeko baliabide eta euskarri. Aldalurrek eta Iruretagoyenak eman dizkigute xehetasun gehiago.

Zer da Klitto? Nola definituko zenukete?

Malen Aldalur (M.A.): Nik esango nuke Klitto atari digital bat edo Interneteko espazio bat dela, eta bertan lantzen diren gai guztiak ikuspegi feministatik lantzen direla. Hau da, feminismoaren inguruko gaiak lantzen dira, bai, baina feminisмотik ere jorratzen dira, hots, ikuspegi feminista batetik. Horrez gain, eduki guztiak euskaraz lantzen ditugu, euskarari ematen diogu garrantzia. Hori bai izan dela oso kontzienteki harturiko erabakia. Feminismoa da helburua eta zergatia, baina gure hizkuntzan, euskaraz.

Hutsune bati erantzuna ematera zatoztela diozue. Zein gabezia nabaritu duzue?

Ana Iruretagoyena (A.I.): Ikusten genuen feminismoaren inguruan bazegoela informazio asko eta, gainera, azkenaldian informazio asko sortzen zuen jende ugari ari zela mugitzen. Tartean euskaraz egiten zuen

KLITTO

Ekain inguruan hasi zen martxan atari digital euskaldun eta feminista. Donostian bizi diren hiru lagunaren ekimena izan da eta denbora gutxian ekarpen oso desberdin eta interesgarriak biltzea lortu dute. Feminismoaren euskarazko plaza falta zela-eta abiatu ziren proiektuan. Orain, feminismoak badauka non hitz egin, non iritzia eman, non hausnartu, non eraiki eta non deseraiki euskaraz.



«Feminismotik hitz egingo duen euskal hedabide bat falta zela ikusi genuen»

jende dezente zegoela ohartu ginen, baina konturatu gara guztiek erdarazko hedabideak dituztela erreferentetzat. Hau da, feminismotik soilik hitz egingo zuen euskal hedabide bat falta zela ikusi genuen. Komunikabide generalista batzuek lantzen dute feminismoa, kolaboratzaileen bitartez, batez ere. Euskal Herri mailan, adibidez, badago kolaboratzaile sare bat nahiko tendentzia eta ikuspuntu feminista duena, baina ez dago euskaraz soilik feminismoaren gaineko edukiak publikatzen dituen mediorik. Gabezia hori ikusi genuen hirurok. Inguruan ere komentatu genuen eta konturatu ginen ez ginela sentsazio hori genuen bakarrak. Hala, gure artean hitz egin eta motibatu egin ginen zerbait egiteko.

Euskal Herrian bada gai hone-tan erreferentziala den atari digital bat, gaztelaniazkoa, hain justu: Pikara Magazine. Eredu moduan jarraitu al duzue?

M.A.: Bai, betidanik jarraitu izan dugu Pikara, gaur egun Klitto jarraitzen duten gehienek bezala, pentsatzen dut. Feminista garenok, askok behintzat, Biblia bailitzan irakurri izan dugu Pikara. Askok saltseatu izan dugu hor, feminismoan espezializatua dago eta eduki interesgarri eta potenteak lantzen dira, baina gaztele-raz da oso-osorik. Bertan idazten duten asko euskaldunak dira, euskaradunak ere badira gehienak, baina gaztelerara jo zuten aldizkari digitala egiteko, akaso jende gehiagorengana iristeko estrategia moduan. Gure kasuan, guk ere euskara helburu estrategiko batekin hautatu dugu. Gure apustua argia izan da hasieratik. Hizkuntzaren hautuan ez dugu zalantzarik egin.

Ikasketaz kazetariak zarete zuek biok baina, horrez gain, feminismoarekiko grina ere partekatzen duzue.

A.I.: Bai, gu biok kazetariak gara, elkarrekin ikasitakoak, gainera. Iratik Euskal Filologia ikasi zuen, baina aritu izan da kazetaritza lanetan ere. Lagunak gara, feministatzat dugu gure burua, eta gai hauen inguruan eztabai-

da asko eta luzeak izaten ditugu. Askok interesatzen zaigun esparrua da feminismoa, eta kezkatzen gaituena ere bai neurri berean. Hirurok genuen gogoia benetan motibatuko gintuen proiektu bat abiatzeko, eta bete genezakeen hutsune polit bat zegoela ikusi genuen arlo honetan. Zalantzati hasi ginen, pixka bat beldurtuta ere bai, ez genekien oso ondo nora gindoazen. Ikusi genuen, hala ere, sare sozialetan sartu eta webgunea sortu aurretik oihartzun handia lortu zuela kontuak, eta konfiantza hartzen joan ginen. Guretzat plazer bat da horrelako zerbait egiteko aukera izatea.

Mugimendu feministetan militatzen duzue?

M.A.: Herri eta auzo mailan ibili izan gara, baina hortik gora, Bilgune Feministan, esaterako, ez gara sekula aritu. Gertutik jarraitu izan dugu, baina gutako inor ez da inoiz lehen leerroan aritu. Dena den, ikuspuntu hori ere interesgarria iruditzen zitzagun, eta hori militatzen duen jendeak ere esan izan digu: hau da, kanpotik barrurako begiradatik aztertzea feminismoa. Azken batean, guk ez dugu protagonista izan nahi. Lehen harria jarri dugu, baina nahi duguna gure inguruan talde bat osatzea da, ahalik eta ahots gehien biltzeko. Argi dugu atari digitalaren oinarri, bide eta helburua feminismoa dela.

Nola ikusten duzue gaur egun Mugimendu Feministaren egoera Euskal Herrian?

M.A.: Egia esan, azken urteotan oso indartsu ikusten dut Euskal Herriko Mugimendu Feminista. Lehenago ere bazuen indarra, baina akaso urrutiagotik bizi genuen, eta azken urteotan gertuagotik bizi dugu. Gero eta zabal-kuntza eta eragin handiagoko mugimendua dela uste dut. Eta Klitto sortu bada, hein handi batean, beste batzuek egindako lanagatik ere bada. Feminismoaren bueltan dagoen mugimendu horren guztiaren ondorioa da Klitto existitzea. Azken batean, Mugimendu Feminista egiten ari den lan guztia ikusita beha-

rezkoa da norbaitek hori guztia kontatzea.

A.I.: Nik esango nuke Euskal Herrian feminismoa polarizatuta dagoela. Batetik, ikusten dut badagoela jende asko ez duena planteamendu minimorik ere egiten feminismoa ulertzeko. Eta, bestetik, feministak daude, beren burua feministatzat duten emakumeak, oso feministak direnak eta nahiko modu erradikalean ere bai asko. Izan ere, betaurreko moreak jartzen dituzun momentuan mundua beste era batera ikusten hasten zara eta aurretik ikusten ez zenituen gauza asko identifikatzen dituzu. Erabaki eta jarrera hori hartzeak eramaten zaitu feminista moduan oso koherente izatera eta jokatzera. Guk, jakina, betaurreko moreak jantzita interpretatu eta landuko ditugu edukiak Klitton.

Ez duzue uste azken urteotan feminismoak, edo feminismoari lotutako gaiak, mediatikoki garai batean baino presentzia handiagoa bereganatu dutela?

M.A.: Bai, nik uste dut baietz. Euskal Herriko medioetan gorkada nabarmena izan da, eta, ziur asko, hemendik kanpo ere antzekoa gertatuko zen. Feminismoa espazio mediatikoak bereganatzen ari da, pixkanaka bada ere. Hedabide tradizionalan, gehiago edo gutxiago, baina lekutxo bat eskaintzen diote mugimendu feministari. Gainera, kolektibo feminista gehienek badute euren atari digitala edota aktiboak dira sare sozialetan... Baina, nire iritziz, kontua beste bat da: ez da hain garrantzitsua feminismoari berari eskaintzen zaion lekua, baizik eta medio generalistetan gai eta edukiak ikuspegi feminista batetik lantzen ote diren ala ez. Horri erreparatu behar zaio, hor dago lanketa egin beharra, nire ustez.

A.I.: Bai, hori da. Esan bezala, hainbat mediotan, eta Euskal Herrian ere, feminismoa lantzen duten feministak egon badauke, baina, bestalde, argi ikusten da kazetari, kolaboratzaile edo bestelako iritziz sortzaileen ikuspuntu gehienak ez direla feministak. Oraindik ere maila al-

MALEN ALDALUR ETA ANA IRURETAGOYENA

KLITTO ALDIZKARI DIGITALA

Feminismoaren inguruko gaiak euskaraz lantzen dituen gune espezializatu baten gabezia jabetuta, «Klitto»

(www.klitto.com) atari digitala sortu dute

Donostian bizi diren hiru lagunek

Julene Larrañaga

tuko gizonezko mendebaldarra-
ren interesen arabekoak dira
nagusitzen diren ikuspegi eta
mezuak. Egia da, dena den, fe-
minismoak irabazi duela espa-
zioa gizartean, bai behintzat es-
plizituki, baina ez hainbeste
transbertsalki.

**Dagoeneko materiala igotzen
hasiak zarete. Zer nolako edu-
kiak eskaintzen dituzue web-
gunean?**

M.A.: Edukien eta formatuen al-
detik erabat irekita gaude. Alde
batetik, betiko formatuak ez di-
ra faltako: albisteak, elkarrizke-
tak, erreportajeak, iritziak... Bai-
na beste gauza asko ere eskaini
nahiko genituzke, horren ohiko-
ak ez direnak.

A.I.: Bai, beti jotzen dugu iritzi
artikuluetara, ohituta gaudelako
edo, baina beste formatu ba-
tzuek arrakasta handia izaten
dute, testu literarioek, bideoek,
ilustrazioek, komikiek... Horiek
ere bildu nahiko genituzke den-
borarekin. Eta norbaitek kantu
bat idatzi nahiko balu ere, gu
pozik! Iritzia eman edo haus-
nartzeko edozein formatu ongi
etorria izango da. Ez diogu inori
eta ezeri aterik ixten.

**Poliki-poliki kolaboratzaile sa-
rea ere josten ari zarete. Nola
sortu da elkarlana: zuek jo du-
zue beraingana edo beraiek
etorri dira zuengana?**

M.A.: Ba, bietatik, egia esan. Ha-
sieran gu mugitu ginen: ezagu-
tzen genuen jendearengana jo
genuen lehenengo, gero haien
ezagunengana... eta horrela.
Oraingo, Kattalin Miner, Josebe
Iturrioz, Danele Sarriugarte eta
Ane Labaka ari dira kolabora-
tzen. Lanean hasi aurretik lotu
genituen lehen kolaboratzaile-
ak, eta hasieratik genekien edu-
kiak ez genituela guk bakarrik
sortuko.

A.I.: Gainera, eta orain pixka bat
irekiago gaudela, proposamen
bat baino gehiago iritsi zaigu
kanpotik ere, parte hartu nahi
duen jendearen partetik. Zentzu
horretan, oso pozik gaude; izan
ere, batzuek ez gaituzte inondik
ezagutzen baina konfiantza
agertu dute gurekin kolabora-
tzeko. Jende aditu eta ezagunaz



gain, beldur gehiago izan deza-
keten horiek ere parte hartzera
animatzea nahi genuke, aditu
eta arituen artean oreka bat lor-
tzeko. Horrez gain, guk geuk ere
edukiak sortzen jarraitzeko as-
moa dugu, baina gero eta ahots
gehiago bildu nahi ditugu. Be-
raz, Klittoren parte izan nahi
duenak gurekin harremanetan
jartzea besterik ez dauka.

**Denak neskak zarete ala badu-
zue mutilen bat kolaboratzaile-
en artean?**

A.I.: Izan ditugu, ez asko, baina
bizpahiru gerturatu zaizkigu.
Klitto ez da plaza itxi bat, hori
argi daukagu. Ez dugu feminis-
moa=emakumea ekiparazioa
egiten, inondik inora ere. Baina,
era berean, argi dugu leku
gehiago eman behar diegula
emakumeei, eta hori inolako
konplexurik gabe diogu. Gizo-
nezkoentzat ere lekua dago, nos-
ki, ikuspuntua baita hemen
axola duena, ez beste ezer.

**Gaztelaniazko edukietatik in-
formazioa hartzeko asmoa du-
zue ala euskara hutsean sortu-
ko dira eduki guztiak?**

M.A.: Esan bezala, gu hiruroz
gain, kolaboratzaile saretxo ho-
rrek bere ekarpena egingo du.
Era berean, jakin badakigu beti
eduki berri asko sortzeko ez du-
gula izango ez mediorik, ezta
denborarik ere. Kontuan izan
behar da beste lan eta zeregin
batzuk ditugula gure egunero-
koan, eta gure denbora librea es-
kaintzen diogula Klittori. Zen-
tzu horretan, interesgarritzat
jotzen ditugun edukiak euska-
raz irakurtzeko aukera ere eskai-



ni nahiko genuke. Eduki interes-
garri asko dago gazteleraz, eta
batzuk euskaratzea badugu bu-
ruan.

A.I.: Bai. Badira medio batzuk
oso potenteak direnak, eduki in-
teresgarriak dituztenak eta ira-
kurlearengana iristea merezi
dutenak. Adibidez, ‘Diagonal’
egunkariko edukiren bat itzuli
dugu dagoeneko. Klitto irakur-
tzen duten gehienek, ziur asko,
Pikara Magazine ere irakurriko
dute, baina agian ‘Diagonal’ ez.
Hori kontuan izan behar dugu,
eta merezi duen materiala gure-
ra ekartzen saiatu.

**Zenbatero saiatzen zarete edu-
kiak plazaratzen?**

A.I.: Astean behin gutxienez ko-
laborazio bat izango da. Gainon-
tzeko edukiei dagokienez, aste-
an gutxienez bi eduki berri
izango dira. Hasierako ideia de-
na martxan jartzeko irailera ar-
te itxarotea zen, horrela uda
ideiak lantzeko eta webgunea
sortzeko erabiltzeko. Baina ma-
teriala genuela ikusi genuen eta
azkenean edukiak sartzen hasi
ginen. Ekainean dena martxan
jarri eta uztailean gauza dezente
igo genituen, kopuru horretatik
gora. Udan parentesi txiki bat
egin dugu, baina martxan gara
berriro.

**Interneten eta sare sozialetan
eman du zeresana Klittok. Zer
nolakoa iruditu zaizue jendea-
ren erantzuna? Espero al zenu-
ten harrera izan al du?**

A.I.: Oso harrera ona izan duela
uste dut. Jendeak irakurri nahi
zuen medio bat dela esango nu-
ke; nire kasuan behintzat, iraku-

rri nahi nukeen medio bat da
Klitto. Egia esan, nahiko emo-
zionatuta sentitu naiz. Inoiz au-
rretik horrelakorik egin gabeak
gara, gazteak gara, ez gara per-
sona ezagunak... Eta momentu
batean konturatzen zara behar-
bada ez zarela iritzi-sortzaile,
baina baduzula iritziak berreste-
ko medio bat eta indar bat. Kli-
tto kondentsatzaile bat izango
balitz bezala ikusten dugu gure
artean. Hau da, orain arte sare
sozialetan hitz egin izan da
hainbat konturen inguruan.
Adibidez, uda honetan izan di-
ren tratu txar kasu ugari bu-
ruz, Gasteizko blusa eta neske-
kin izan diren gorabeheren
inguruan, etab. Orain arte Twi-
tter edo Facebook-eko eztabaida
edo haserrealdi batean geratzen
zena beste eremu batera erama-
teko aukera eskaintzen dugu.
Gure ustez, Klittok eskaintzen
du aukera hori: ematen du plaza
bat gai hauen eta antzekoen in-
guruan lasai hitz egin eta haus-
nartzeko. Jendeak hori eskertzen
duela uste dut, plazaratzen di-
ren iritziekin ados egon ala ez.

Ze helburu finkatu dituzue?

M.A.: Bi helburu nagusi zehaztu
ditugu. Bata, kanpora begirakoa:
Klitto bera eta bere sare guztia
erreferente bat izatea nahi ge-
nuke; hau da, euskaraz feminis-
moaren eta feminismotik lan-
duko dituen gaien inguruko
atari erreferentziala izatea Eus-
kal Herrian. Kanpora begira
egin dezakegun ekarpenik han-
diena da feminismoaren infor-
mazioaren biltokia izatea, eta
plaza bat izatea gai horren ingu-
ruan zerbait esateko duen edo-

norentzat. Eta, barrura begira,
nik uste dut hirurok bat gatoze-
la hau erronka moduan hartze-
an. Batez ere ikasteko aukera
aparta da guretzat: bai alde tek-
nikoan, multimedian, publizita-
tean, feminismoan... Profesional
eta pertsona moduan ikasteko,
azken finean. Azken hau lortzen
ari gara dagoeneko, bestea zaila-
goa izango da ziur asko... Baina
uste dut bagoazela bidea egiten
eta jendea gureru erakartzen.

**Proiektua zuen kontura sortu
duzue, autofinantzatu egin du-
zue erabat. Aurrera begira bes-
te alternatibarik planteatzen
ari zarete?**

A.I.: Printzipioz, borondatez au-
rrera atera dugun proiektu bat
da. Guztiz autofinantzatua izan
da eta dirurik ez galtzea da bu-
ruan duguna. Lagun batzuek la-
gundu digute webgune berriare-
kin, eta oso pozik geratu gara
emaitzarekin. Lan izugarria egin
digute eta, noski, nahiko genie-
ke ordaindu, aurrera begira web-
gune txukun bat mantendu,
edukiak modu atseginean eskai-
ni... Diru laguntzak eskatzea bu-
ruan dugu, baina horretarako el-
karte gisa izena eman beharko
genuke. Hortik aurrera ez dugu
ezer pentsatu: publizitatea, diru
irabaziak... Klitto ez dugu horre-
la planteatu. Irabazi ekonomiko-
ak izateko asmorik ez dugu. Go-
zamen hutsez egiten dugun
zerbait da, nahiz eta denbora eta
lana exijitzen dituen.

**Bukatzeko... Zer dela eta Klitto?
Izena erraz bururatu al zitzai-
zuen?**

M.A.: Egia esan, sekulako gora-
beherak izan genituen izenare-
kin. Arratsalde ugari eman geni-
tuen horrekin bueltaka, izen
egoki baten bila. Azkenean, Lei-
re Palaciosen “Berria”-ko artiku-
lu baterako erabili zuen izena
proposatu zigun Danele Sarriu-
gartek: “Eta klitto!”. Esamolde
hori erabili zuen artikulua bate-
an Palaciosen, klitoria eta kito
uztartuz. Sekulakoa iruditu zi-
tzaigun, motza baina indartsua,
emakumearekin lotura zuena...
Azken finean, guk nahi genue-
nerako aproposa. Berari baime-
na eskatu eta aurrera!

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JESUS ELOSEGUI. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

IMOZTARRA BAINO MANTSOAGOA ZARA

Joan den mendeko 20ko hamarkadan zabaldu zuten Imotz bailara eta Iruñea arteko errepidea, eta errepidea zabaltzearekin bat sortu zen Imoztarra autobus konpainia. Ollakarizketako Benta Berriko gaskuetarrek sortu zuten konpainia, eta, jendea eramateaz gain, bestelako tratuak ere egiten zituzten. Bailarako herrietan esnea erosi eta gero Iruñean saltzen zuten adibidez. Ogia ere egiten zuten, autobusa pasatzen zen herrietan saltzeko. Autobusa oso goiz ateratzen zen Etxalekutik eta bailarako herri askotatik pasatzen zen Iruñera iritsi arte. Etxaleku eta Iruñea arteko 30 kilometroak egiteko hiru ordu behar zituen autobusak, bai oso zaharra zelako bai gidariek bidean topatzen zituzten ostatu guztietan geldialdia egiteko ohitura zutelako. Arratsaldean Iruñetik Etxalekurako bidea egiten zuen berriro. Iruñean zabaldua zegoen esaerak honela zioen: «Imoztarra baino mantsoagoa zara».

{Almidoia}

Arabako landetako altxorra

Patataren osagaia nagusia ura da (%80), eta, ondorioz, kaloria gutxiko produktua da. Almidoi (karbohidratoak) askoko elikagaia ere bada patata, baina ez du balio arroza, pasta edo lekak ordezkatzeko. Tuberkulu honek ez du proteina askorik, zuntz gutxiko elikagaia da eta gantzik ere ez du. Baina potasioz ongi hornituta dago, eta magnesio kopuruan ere beste barazki batzuen pare da. Gainera, landatu den lurra mineraletan aberatsa baldin bada, fosforoa, kloroa eta burdina ere emango ditu.



Erakundeek eta enpresek bat egin dute Arabako patata sustatzeko.
Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS GAUR8

na baino gehiago. Zehazki, Euskal Baserri ziurtagiridun patatzen erosketa %25 hazi zen, eta, Eusko Label patatena, %10.

SALMENTA IGOERA

«Ziurtagiridun gero eta Arabako patata gehiago saltzen da egun Euskal Autonomia Erkidegoko Eroskiren sare komertzialean. Beste zenbait produktuekin egin bezala, kooperatiba Arabako patata ekoizpena bultzatzen ari da, tokiko ekonomia indartzeko luzera begirako hitzarmenak eta akordioak sinatuz elikagai ekoizleekin», azaldu zuen pasa den astean Gasteizen egin dako agerraldian Asun Bastidak, Eroskiren tokiko produktuetarako zuzendari komertzialak.

Udaparekin lan egiten duten nekazariak urtero 7.000 tona patata ekoizten dituzte. Azken urteotan, gainera, %60 igo da Eusko Label eta Euskal Baserri zigiludun patatzen kopurua

Gasteizko Gobernuak eta Eroskik akordio bat sinatu zuten 2013an tokiko elikagaien industria indartzeko. Arabako patata bera ere egitasmo horren onurak jasotzen ari da

Aurten, Eroski eta Udapak kanpaina berezi bat jarriko dute abian Arabako patataren sasoia-ekin bat eginez, eta apirilera arte iraungo du. «Helburua da produktu autoktono honen bikaintasunari balioa ematea eta haren kontsumoa sustatzea elikadura osasungarriagoaren oinarri gisa. Euskal Baserri eta Eusko Label zigiludun Arabako patata kalitateagatik bereizten da. Eta Eroskik kalitate goreneko janari freskoak eskaini nahi dizkio kontsumitzaileari», nabarmendu zuen agerraldian Ugaitz Lana Gasteizko Eroski Boulevard hipermerkatuko kudeatzaileak.

Koldo Lopez Roblese, Udapako kalitate zuzendariak, txalotu egin zituen Eroskiko ordezkarien hitzak. «Eskertzen diogu Eroskiri tokiko produktuen alde hain sendo egitea eta horrelako konpromiso aritzea hemengo nekazaritza elikagaien sektorearen etorkizunaren alde. Eusko Label eta Euskal Baserri ziurtagiridun patataren ekoizpenaren erdia baino gehiago Eroskik erosten digu», ohartarazi zuen.

Kanpaina Lakuak eta Eroskik sinatutako akordio baten emaitza da. Hitzarmenak tokiko nekazaritzako elikagaien industria

bere aniztasun osoan indartzea du helburu; eta lankidetzarako konpromisoa jasotzen da, bai bertako lehengaiei balio erantsia emango dieten produktu berriak merkaturatzeko, bai eta EAEko nekazaritza elikagaien sektoreko enpresa traktoreei laguntzeko. Gasteizko Gobernuaren arabera, hitzarmen honen bidez, «landa garapeneko laborantza, abeltzaintza eta jarduera tradizionalak berreskuratu nahi dira; hala, produktu horiek Eroskiren dendetan merkaturatzeko konpromisoa hartuko da, ingurunean aberastasuna sortzeko eta lanpostuak berreskuratzen laguntzeko».

Lanpostuei dagokionez, aurtan Udapan lau ekoizle berriekin lanean ari direla azpimarratu behar da. Igoera ezohikoa da, izan ere, nekazari ugari erremolatxa landatzearen alde egiten ari dira azken urteotan. «Patatak lan gehiago eskatzen du, eta, ondorioz, nekazari askok lan mekanizatu gehiagoko produktuak landatzearen alde egin dute», azaldu du Saenz de Camarak. Arazoak arazo, Eroski eta erakundeek laguntzekin Arabako patata etorkizuneko produktua izatea espero dugu.



SASOIKOA

ARABAKO PATATA



Nekane Arzallus da Retabet.es GBCko presidente berria. Taldea barrutik oso ondo ezagutzen du eta ardura handiz ari da lanean. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

infraganti

NEKANE ARZALLUS

Retabet.es GBCko presidentea da Nekane Arzallus. Duela bi hilabete hartu zuen kargua klubaren unerik gogorrenetariko batean eta ari da pixkanaka egoera bideratzen. Halere, emakumea eta presidentea dela da albiste askorentzat. Izan ere, ACBko talde bateko presidentea den bigarren emakumea besterik ez da. Lehenengoa Pepita Merce izan zen, 83-84 denboraldian CB L'Hospitalet gidatuta.

Zorionak Nekane, bazen garaia emakume bat gizonezkoen talde bateko presidente izateko». Hitz horiek esan zizkion Matxalen Ziarsolok (Bera Bera eskubaloit taldeko kapitaina) Nekane Arzallusi Retabet.es GBCko presidente izendatu zutenean. Ziarsoloren hitzak

oraindik orain kirol munduan dagoen egoeraren adierazle dira, non gizonezkoak nagusi diren. Zer pentsatua eman zioten Arzallusi: «Nik prozesua normaltasunez bizi izan dut. Burua lana ondo egitean eta aurrera ateratzean izaten dut eta normalean bestelako kontuei ez diet jaramonik egiten, baina horrelakoak entzundakoan ohar-

tzen zara gauzez, eta, egia esateko, garrantzitsua da, berdintasunaren bidean beste aurrerapauso bat suposatzen du eta». Miguel Santos, Gorka Ramoneda eta Alvaro Bilbao izan ziren kargu berean Arzallusen aurretik. Kasu horietan presidentearen sexua ez zen albiste izan, oraingoan, aldiz, bai: «Ez luke albiste izan behar emakume bat

ACBko saskibaloi talde bateko presidente izateak. Emakumeok gizonezkoen gaitasun berberak ditugu, eta, hortaz, prest gaude kargu horiek hartzeko. Dena den, guk lan berbera egin arren, beti demostratu behar dugu gehiago, eta, halaber, egia da jendeak gure jarduna gertuagotik jarraitzen duela. Gaur egun horrelako gauzak zalantzan jartzeko ez du zentzurik». Duela bi hilabete inguru hartu zuen presidente kargua. Aurretik klubeko presidenteordea zen, baina egun duen ardura oso bestelakoa da, eta, ondorioz, epe laburrean Arzallusi bizitza erabat aldatu zaio: «Orain ni naiz enpresekin, erakundeekin, babesleekin eta komunikabideekin bilerak egiten dituen eta aurpegia eman behar duena. Gainera, aurkezpenak, ekitaldiak... gauza pila bat egoten dira eta denetara iristea ez da erraza». Konpromiso horietako bat, hain zuzen, ACBko batzarra da eta bera noski, han izan zen. Gainerako ordezkari guztiak gizonezkoak ziren eta aitortzen

du hasieran nahiko arraro sentitu zela. «Zure ingurura begiratzeko duzu eta pentsatzeko duzu: 'Jesus, ni naiz emakume bakarra'. Halere, nik argi dut nor naizen eta zeren ordezkari moduan nindoan, eta nire buruarengan sinesmen osoa nuen». Ondo hartu zutela, eta, oro har, gaitzaren tratua egokia izan zela kontatzen du, haatik, jasan behar izan zuen betiko txiste errazik: «'Emakume bat hemen barruan, orain zuek aginduko duzue'. Horrelako komentarioen bat entzun behar izan nuen. Dena den, ez zitzaidan irudituko asmo txarrez eginak zirenik eta ez nintzen inondik ere gutxietsia sentitu. Halere, egia da 2015. urtean izanik horrelako komentarioak saihestu egin beharko liratekeela».

KALEAN JASOTAKO BEROTASUNA
Bestelako galdera zentzugabeak entzutea ere egokitu zaio, esaterako, ea aldageletara joango den: «Galdera horren aurrean nire erantzuna argia da, baietz. Atea joko dut sartu aurretik, baina sartuko naiz. Presidente moduan nire eginkizunetako bat da jokalariekin harremana edukitzea eta aldageletara joan eta haiekin hitz egiteko beharra ikustean normal-normal egingo dut. Ez dut ulertzen zergatik jartzen diren zalantzan kontu horiek». Kalean jaso duen berotasuna ordea, azpimarratzekoa da, esker oneko hitzak besterik ez ditu jaso: «Jende ezezagun mordoa gerturatu zait zorianak eta animoak emateko eta ikaragarri eskertzen dudana zerbait da; nire lana egiteko indar handia ematen dit». Kontseilukideek erakutsi dioten berotasuna eta konfiantza ere ez ditu ahaztu nahi, izan ere, haiek izan ziren Arzallus kargurako proposatu zutenak Alvaro Bilbao dimisioa aurkeztean. Era berean, Miguel Santos, bere bultzatzaile nagusia izan dena ere gogora ekarri du: «Niretzat Miguel oso pertsona garrantzitsua izan da. Beti izan du konfiantza handia nigan eta hori ikaragarri eskertzen diot. Berak lan egiteko duen gaitasuna sekulakoa da, eta gauza

EMAKUMEAK KIROL TALDEEN GIDARI

Kirol mundua betidanik egon da gizonezkoei atxikita. Duela urte batzuk emakumea eta kirolari izatea salbuespena zen eta gaizki ikusita ere bazegoen. Hala, gustatzen zitzaien hura egiteagatik, kirola praktikatzegatik, hain zuzen, astakeriak jasan behar izan zituzten zenbait emakumek. Dena den, asko eta askok bere eskubideen alde gogor borrokatu zuten. Orduan hasi ziren bidea irekitzen, eta, egoera gero eta hobea den arren, gaur-gaurkoz parekidetasunetik urrun egoten jarraitzen du, izan ere, emakume kirolariek gizonezkoek baino oihartzun eta baliabide gutxiago dituzte.

Emakumeek kirol taldeetako erabakitze guneetan duten presentzia aztertzen jarritz gero ikusten da egoera antzekoa dela. Gutxi dira klubetako zuzendaritza edo administrazio kontseiluetan sartuta daudenak eta egoera are eta argigarriagoa da presidente kargua betetzen duten emakumeak zenbatzen hasita. Halere, egon badaude, eta egon dira.

Nekane Arzallus izan da horma hori hausten azkena Retabe.es GBCko presidente kargua hartuta. Bere kasua aldaketarako printza bat da, Retabe.es GBC gizonezkoen talde bat izateaz aparte, Gipuzkoa mailan erreferente argia delako.

Bestalde, aipagarria da Gipuzkoako beste bi saskibaloit talde garrantzitsuenen presidenteak ere emakumezkoak direla. Carmen Muguruzak hainbat urte daramatza IDK Gipuzkoa EHU taldea gidatzen. Maier Lizasok, berriz, aurreko urtean hartu zuen Iñaki Uriaren lekukoa Iraurgin. Iraurgik apustua egin du azken urteetan emakumeak zuzendaritza karguetan sartzeko, baina Lizaso da presidente izatera iritsi den lehenengoa. Lizasok barru-barrutik ezagutzen zuen kluba, izan ere, 12 urtetik 21era bitarte taldeko jokalaria izan zen. Halaber, azken urteetan teknifikazioko entrenatzaile moduan jardun zuen. Aurten, gainera, emakumezkoen maila gorenean arituko da Iraurgi eta erronka zaila bezain polita du aurrez aurre.

Futbola da gaur egun jarraitzaile gehien dituen eta eragin handiena duen kirola, eta bertan ere izan da emakumezko presidenterik. Teresa Rivero izan zen Lehen Mailako talde baten lehendabiziko emakumezko presidentea. Bere gizona, Jose Maria Ruiz Mateos, Rayo Vallecanoko akziodun nagusia zen eta hark hautatu zuen emaztea presidente 1994. urtean. Kirol arloan urte oparoak bizi izan zituen Rayok Riveroren agintaldian, eta, hala, egindako lana saritzeko zelaiari presidentearen izena jartzea erabaki zuten bazkideek. Gerora, ordea, senarraren enpresek eta klubak pilaturiko zorren ondorioz egoera gaiztotzen hasi zen, eta, azkenean, 2011. urtean Rayo Vallecanoren akzioak saldu egin zituen Ruiz Mateosek.

Gure taldeei dagokienez, Athleticetik eta Realak denbora gutxian bada ere izan dute emakumezko bat presidente moduan. Ana Urquijo abokatua 2006an hartu zuen Athleticen gidaritza Fernando Lamikizek dimisioa eman eta gero taldea egoera zaillean zela. 1990ean

Jose Julian Lertxundi presidente zela Athleticen zuzendaritza batzordean sartu zen lehen emakumea izan zen Urquijo, eta, Lamikizekin, presidenteorde ere izan zen. Urquijo 2007ra arte egon zen presidente karguan; Fernando Garcia Macuak hartu zuen bere lekukoa.

Realak izandako emakumezko presidente bakarra Maria de la Peña abokatua da. De la Peña ere dimisio baten ostean –Miguel Fuentesena– iritsi zen klubaren arduradun nagusi izatera, 2007an. Denboraldia amaitzeko oso gutxi falta zela eta taldea kinka larrian zela hartu zuen aginte makila, baina ezin izan zuen egoera zuzendu eta Realak Bigarren Mailara jaitsi zen denboraldi hartan.

Horiek dira adibideetako batzuk. Beraz, ikus daitekeen moduan, gutxi izanagatik izan badira presidente izatera iritsi diren emakumeak. Hori bai, 2015. urtean egonagatik argi dago oraindik zaila dela emakumeak kirol taldeen arduradun gisa ikustea. Ondorioz, bide handia dute egiteko.

asko erakutsi dizkit berarekin lan egin dudan urteetan. Presidente izendatu nindutenean ere oso hitz garrantzitsuak esan zizkidan: ni neu izateko eta nire irizpideak jarraitzeko».

Arzallusek kirola betidanik maitatu duen arren, dagoen lekura iristeko behetik gorako ibilbidea egin du. Lehenengo urratsak kirolari moduan eman zituen. Berari futboleak jokatzea gustatzen zitzaion, baina inguruan emakume talderik ez zegoenez 14 urterekin saskibaloian jokatzen hasi zen Lizeo taldean: «Pepelu Mujika eta Julen Madina izan ziren nire entrenatzaileak. Ondoren, Kote Olaizolarekin Donosti Las Banderas taldean aritu nintzen. Baina lesioekin oso zorte txarra izan nuen eta 18 urterekin Bilbora unibertsitatara joatean utzi egin nuen».

Trebetasuna, baina, ez du galdu. Izan ere, argazkiak atera ostean horiek egiteko erabilitako baloia jaurti du saskira eta ez du hutsik egin: barrura. Urte mordoa igaroagatik ondo gogoan ditut jokalaritza zeneko garaia: «Or-

duan ez zen ohikoa emakumeek kirola egitea eta mari-mutil bat nintzela esaten zidaten. Nik argi nuen ezetz: kirola gustuko nuen emakumea nintzen, ez besterik, baina orduan hala zen. Jokatzeko genituen baliabideak ere beti ziren txarrenak: aire librean jokatzen genuen euria, haizea edo hotza izan, eta ia ez zen inor etortzen gu ikustera».

BETIDANIK ERAKARRI DU KIROLAK

Ordutik hona egoera dezente aldatu da. Bilakaera hori gertutik jarraitu du bere alabarekin –Nora Azurmendik Alcobendas tal-

Zentzurik gabeko galdera entzutea ere egokitu zaio, esaterako, ea aldageletara joango den: «Nire erantzuna argia da, baietz. Atea joko dut sartu aurretik, baina sartuko naiz»

«Guk kirola egiten genuenean emakumeok jokatzeke genituen baliabideak beti ziren txarrenak: aire librean jokatzen genuen euria eginda ere, eta ez zen inor etortzen gu ikustera»

dean jokatzen du eskubaloian– . «Alabak zorionez nik izan ez nintuen baliabideak izan ditu. Halere, egia da gizonekin alderatuta egoera oso bestelakoa dela».

Bilbon zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean. Hirigintzan espezializatu zen eta behin ikasketak amaituta lanean hasi zen. Ogibide horretan jardun zuen hamar urtez, baina, ondoren, aita hiltzean, familiako negozioan sartu zen anaiari laguntzeko: «Egia esan, zuzenbide ikasketak aitzak gomendatuta egin nituen. Abo- katu lana ez zitzaidan, gainera, gehiegi gustatzen. Niri betidanik erakarri izan nau kirolak eta kirolarekin loturiko zerba- tetan jardun nahi izan dut».

Kirol munduko bigarren ibilbideak 2005ean du abiapuntua, izan ere, orduan barneratu zen mundu horretan, ezustean. Miguel Santosek Realeko hautes- kundeetarako hautagaitza aur- keztu zuen eta emakume bat nahi zuen bere taldean. Haren lagun batek gomendatuta hots egin zion Arzallusi: «Miguelek

emakume bat nahi zuen bere taldean, baina ez argazkian ateratzeko soilik, proiektuko kide garrantzitsu izateko baizik. Nik aurretik ez nuen ezagutzen, bai- na deitu egin zidan. Deia opo- rretan nengoela jaso nuen, ordu eta erdiz egon ginen hitz egiten, eta, familiarekin adostu ostean, baiezkoa eman nion. Kanpaina martxan zegoenez hurrengo egunean Donostian nintzen la- nean». Hautagaitza hura ez zen irabazle suertatu, baina, halere, Arzallus eta Santosen arteko lo- tura bizirik mantendu zen.

Garai hartan Miguel Santos GBC saskibaloit taldeko presi- dente ere bazen eta Arzallus beti zegoen eskatzen ziotenean la- guntzeko prest: «Niri betidanik ikaragarri gustatu izan zait kirola, eta, beraz, eskatzen zidatene- an gustu handiz laguntzen nien. Gauza txikiak egiten nituen: pa- biloiak muntatzen lagundu, kar- telak behar zirenean eraman, enkargu batzuk egin... Horrez gain, gure familiako enpre- sak –Urtira– diru ekarpen ba- tzuk ere egiten zituen».

2007an heldu zitzaion Santosen bigarren proposamena: bere lantaldean sartzeko eskatu zion. Kluba sozietate anonimo bilakatu zen, eta, administrazio kontseilua aldatu behar zutenez, bertako kide izatea eskaini zion. Baiezkoa izan zen Arzallusen erantzuna orduko hartan ere. Hala sartu zen GBCko egituran.

KLUBA BARRUTIK EZAGUTUZ

Duela hiru urte eman zuen hurrengo aurrerapausoa, orduan izendatu baitzuten klubeko presidenteorde. Zeregin horretan jardun du hiru urtez eta, nahiz eta une gogor asko igaro dituzten, aitortzen duenez oso esperientzia aberasgarria izan da arlo guztietan eta gauza asko ikasteko baliagarri suertatu zaio. «Presidenteorde izateak klubaren funtzionamendua barru-barrutik ezagutzeko aukera eman dit. Kluba desagertzeko zorian izan zen iragan denboraldi amaieran eta oso momentu latzak pasa genituen. Zaragozan galdu eta maila galdu genuenean egoerari buelta emateko gaitasunik ez genuela izango uste nuen. Pentsatu nuen zortzi urteko etapa amaitu zela, baina, azkenean, egoera iraultzea lortu dugu ikaragarritzko lana eginda. Niretzat ikaragarria da orain gauden moduan egotea, lehen mailan eta proiektu bideragarri batekin, alegia».

Alvaro Bilbaok lan kontuengatik presidente izateari uko egin zionean administrazio kontseiluak aho batez proposatu zuen Arzallus kargurako: «Alvarok kargua utzi eta haren lekua nik hartzea proposatu zidatenean zalantzak izan nituen, egoera ez baitzen batere samurra. Nik nire buruarengan banuen konfiantza, baina gauza asko hausnartu behar dira neurri horretako erabaki bat hartu aurretik. Dena den, ikusi nuen aurrerapauso bat emateko garaia zela eta hala egin nuen».

Arestian aipatu moduan klubak kinka larrian zen Arzallusek kargua hartu zuenean, baina pixkanaka ari da egoera bere onera eramaten. ACB Ligara igotzea lortu zuten bi taldeek ez zuten bertan jokatzeko izenik



Bestelako lanetan aritu bada ere, kirolaren munduak asko erakarri du betidanik Arzallus. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

eman arazo ekonomikoak tarteko eta talde horietako baten lekua hartuta jarraitzen du talde donostiarrak maila gorenean. Arlo ekonomikoak makina bat

buruhauste eman dizkio Arzallusi baina azaltzen du erakunde aldetik beste planteamendu bat dagoela eta babesle nagusia lotzeak ere arnasa eman

diela. Haatik, kontuak orekatzea da oraindik orain bere lehentasun nagusia: «Aurreko urteko eta aurtengo aurrekontuak orekatuta daude baina zuloa atzetik

dator eta hori konpontzea da orain nire zeregin nagusia. Egungo testuinguruan dirua lortzea askoz zailagoa da, baina lan eginda lortuko dugu».

Kirol arloari dagokionez jokalarien joan-etorriekin izan da mugimendurik udaran. Dena den, osatu duten multzoarekin gustura dago: «Taldea ona osatu dugula uste dut, baina aurtengo maila ez galtzarekin konformatzen gara, nahiz eta zerbait gehiagorako taldea dugula uste dudana. Trantsizio urte bat izango da».

Bestalde, kirolak egungo gizarztean duen eraginaren jakituna da Arzallus, eta, zentzu horretan, kirol arloan lortzen diren lorpenek aparte, argi dauka klubak zein irizpide eta baloreen arabera gidatu nahi duen: «Laguntasuna, leialtasuna eta talde lana izango dira nire gestioaren ardatzak. Taldea familia bat izatea nahi dut eta oinarri horiekin aurrera eginda gauzak errazagoak izango direla uste dut. Gizarzte honetan jende askok bere burua besterik ez du begiratzen, baina hori ez da bide egokia». Taldeari erreferentzia egiten diotenean ez da jokalariei eta teknikariek soilik ari, gainerako langileak ere taldearen parte dituzte Arzallusek. Are gehiago, taldearen oinarri dira berarentzat: «Lan ikaragarria egiten dute inoiz aurpegi txarrik jarri gabe. Balio handiko jendea da».

Ildo horiei segika eta bere izaerarekin –oso pertsona apala, adeitsua, gertukoa, pazientzia handikoa eta bere buruarengan konfiantza duena da– emaitzen gorabehereaz harago seguru kluba norabide egokian zuzenduko duela. Era berean, bide urratzaile eta erreferente izaten jarraituko du. Retabes.es GBCko presidente izateaz gain, Gipuzkoako Golf Federazioko presidente ere bada, anaiarekin batera familiako enpresa eramaten du, eta, halaber, berriki Metadeportek Estatuan kirolaren industrian eragin handiena duten emakumeen zerrenda bat argitaratu du eta tartean ageri da Arzallus, seigarren postuan. •

Mikel Ibargoién